

KONTROL MOZIOA

Hizkuntza irizpideak gaiak artelanen bidez lantzen direnekoari dagokiona

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko abenduaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroan ehunka donostiarrek esfortzu handia egin dute euskaraz bizitzeko eskubidea nahia izatetik errealitate bihurtzeko: Intxaurrondo eta Altzako 500 auzotarrek adierazi dute nahi duenak haiekin euskaraz aritzeko aukera duela eta beste 250ek lehen hitza euskaraz egin dute. Herritarrak eredu izan ditugu. Herritarrak eredu izan ditugu eta, lekuko hori hartuta, Udalaren laguntzaz abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat etorrita, deialdi hori bera hiri osoari luzatu zaio.

Eredu ere izan behar du administrazioak, baina garai bertsuan kontrakoa ikusteko aukera izan dugu. Izan ere, azaroaren 3an alkatearen gonbidapena jaso genuen Udalak antolatu duen erakusketa berezi baten hasieran parte hartzeko: "Envejezando", azaroaren 8an, Koldo Mitxelena Kulturuneko erakusketa aretoan. Udaleko web orriaren bidez azaldutakoaren arabera, bai "Hitzak eta Ekintzak - Gehitutako proiektu berriak" atalean dioenez, bai Udaleko albisteen ataletik adierazten duenez, "Envejezando" erakusketa bere proiektuen artean txertatu du Udal Gobernuak.

Donostian ikusgai eta donostiarrak helburu, erakusketak ez zituen Udaleko hizkuntza-irizpideak bete. Horren guztiaren lekuko izan ziren, esan bezala, alkatea bera eta Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkaria, baita herritarrak ere. Izan ere, urraketaurrean aurrean kexuak helarazi dira eta, horren aurrean, Udalak erakusketarekiko ardura onartuta, horrela sortua zegoenez ezin zela besterik egin -laburpena jasotzen duten orritxoek harago- dio. Itzulpenak ez du kultur jarduera oztopatu behar, noski, baina 2016ko Hiriburutzako esperientzietatik abiatuta, bestelako moldeak erabil daitezke, kanpoan sortu den arte lana bateragarri egiteko tokiko hizkuntza eskubideekin: tokiko beste artista bati parte-hartzea eskatuz, bideoen erabileren bitartez, panel bikiak jarriz, erreplika txikiak egoki kokatuz... Betiere herritarrek bi hizkuntzetan jasoak izan direla argi geratuta.

Donostiarraren hizkuntza eskubideak behar bezala zainduak izan ote ziren zalantza sortu zen kasu honetan, Kultura Hiriburutzan eta bestelakoetan izandako eskarmentutik ezer gutxi ikasita; eta are eta justifikatzeko zailagoa dena, inongo konpromiso berri ez hartzeko asmoa agertu gabe Udal Gobernuaren partez. Zalantza hori zegoen mozio honi bide eman dion interpelazioa egiterakoan, zahartzaroaren arazoak lantzerakoan "Envejezando" erakusketaren bidez; eta zalantza berriku da arestian aipaturiko interpelazioa udal batzordean aztertzerakoan. Jasotako datuak eta gaia tarteko

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Gizarte Ekintzara zuzendu baikenuen, baina Etxegintzari zegokiola argitzeaz gain, beste azalpen, neurri edo asmorik ez zen mahaiganeratu, Donostia Lagunkoia zehar-lerrotasunean oinarritzen den programa azaltzeaz harago. Erakusketa bukatu zen abenduaren 9an, baina horrek ez du eragozten Udal Gobernuak donostiarren eskubideak zaindu eta errespetatzeko konpromisoa hartu behar duela, departamendu estankoen arteko inkomunikazioak gaindituta. Eta konpromisook etorkizunari dagozkio, gertatu dena gertatuta ere, erremediorik ez duenez, geroan halakorik errepika ez dadin, euskararen lanketa, bultzada eta garapena ere zehar-lerrotasunean oinarritzen den gaia baita.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1,- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, donostiar ororen eskubideak bermatuta gera daitezen, herritarrei helarazten dizkien informazioa edo/eta iritziak artelanen bidez bideratzen dituenan, edukiok jaso ahal izateko neurri egokiak hartzeko, direla beste artelan batzuen bidez, direla itzulpen sistema egokien bidez, betiere indarrean diren hizkuntza-irizpideei jarraiki.

2,- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari donostiar ororen eskubideak bermatuta geratzeko ardura dadila, indarrean diren hizkuntza-irizpideei jarraiki behar diren neurriak hartuta eta horien inguruan erantzun dezala, dena dela horretaz arduratzen den Udaleko saila, atala, edo erakundea.

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia